

HAUTESKUNDE EGUNAK BERRETSI DITU PRESIDENTEAK: DUMAKOAK ABENDUAN, ETA LEHENDAKARITZAKOAK 2000. URTEAN

Jeltsinek Putin izendatu du lehen ministro, eta lehendakari gisa ere aurkeztu du

■ Kremlinoko buruak azalpenak eman gabe kanporatu ditu Sergei Stepaxin aurreko lehen ministroa eta haren gobernu osoa

■ 18 hilabetetan Errusiak bost gobernuburu izan dituelako oso haserre azaldu dira oposizioa eta baita presidentearen aliatuak ere

■ Ez duela larrialdi neurririk indarrean jarriko eta ildo ekonomikoari eutsiko diola iragarri du Putinek

Iker Aranburu / Donostia

HIRU hilabete baizik ez du iraun Sergei Stepaxinek Errusiako lehen ministro gisa. Kremlinera Dagestango borroken berri ematera itzultzean, Jeltsinek jakinarazi zion gobernuburutza utzi egin beharko zuela, bere ministro guztiekin batera.

Aldi berean, Jeltsinek jakinarazi zuen Vladimir Putin izendatu zuela lehen ministro. Lehen adierazpenetan, Putinek nazioartea lasaitu nahi izan zuen eta orain arteko ildo ekonomikoari jarraituko diola iragarri zuen. Era berean, ez du larrialdiko neurririk hartuko giro politikoa kontrolatzeko. Putin, lehen ministro ez ezik, Kremlinoko lehendakari gisa ere izango da hurrengo urteko Lehendakariitzako hauteskundeetan. Boterean jarraitu nahi duela zioten informazioak gezurtatu nahian, Jeltsinek esan zuen hauteskundeetako egunak errespetatuko direla eta, hortaz, Duma edo Legebiltzarreko bozaz aurtengo abenduaren 19an izango direla.

Oposizioa, txundituta

Dumak datorren astelehenean egingo du bilera Putinen izendapena bozkatzeko. Diputatuak hiru aukera izango dituzte gobernuburu berria onartzeko, eta egiten ez badute, Jeltsinek Duma desegin egingo du. Duman presidentearen aurkakoak diren arren —komunistak nagusiki—, ez dirudi eragozpenik jarriko dutenik.

Hala ere, diputatuak kritikatu egin dute 18 hilabetetan Jeltsinek lau ministro kanporatu izana. «Erregimena agon nian dago, baina Jeltsinek berriro krisi larria sortu du», ziurtatu zuen Ziuganov komunistak. Boris Nemtsovek ere, presidentearen aldekoa bera, egin zuen kritika: «Erabateko erokeria da».



STF-EPA

Jeltsinek egin du aukera

Iker Aranburu

JOAN den astetik aurreikusten zen *kolpea* eman zuen atzo Boris Jeltsinek Sergei Stepaxinen kanporatzea iragarrita. Inor gutxi harritu du berriak, presidentearen ingurua oso haserre zegoelako Stepaxinekin, *belatza* behar zuena *usoa* izan baita oposizioarekin.

Gainera, Jeltsinek azkenean hautatu du bere oinordekoa, Vladimir Putin KGB zeneko buruzagia, alegia. Hautuak erakusten du Jeltsinek ez zuela non aukeratu handirik, oso itzal politiko txikiko pertsona aukeratu baitu.

Funtsean, aliatu gutxierekin geratu da Errusiako presidentea agintaldi nahasi eta gatazkatsu baten ondorioz. Geratzen zaizkion aliatuak —Viktor Txernomirdin eta teknokrata liberalak— ez dute errusiarren sustengurik, biztanleen erdiak pobrezian utzi dituen politika bultzatu baitute. Putinek oso lan ona eta ikusgarria egin beharko du abendura bitartean, eta agian hortik maiatzera bitarte ere bai, Jeltsin ordezkatu nahi badu. Gaur egun, ez dirudi bigarren itzulira ere igaroko litzatekeenik, askoz

indartsuagoak baitira Genadi Ziuganov komunista edo zentristen hautagaia, Jevgeni Primakov dela edo Juri Lujkov Moskuko alkatetea dela.

Putinen lana izango da Jeltsin eta haren ingurua defenditzea. Errusiako komunikabideetan *Familia* deriztzen inguruak interes ekonomiko ilun asko ditu, eta agintari berri batzuek dena hankaz gora jar dezakete. Juri Skuratov fiskalburua saiatu zen *Familia* judizialki ikertzen eta berehala baztertu zuten kargutik, prostituta batzuekin nahastu ondoren.

soslaia

VLADIMIR PUTIN •
Errusiako lehen ministro gisa



Itzaleko gizona

LEHEN aldiz bere bizitza politikoan Vladimir Putinek jendaurrera begira lan egin beharko du. Izan ere, orain arte Putin itzaleko gizona izan da.

1952an jaio zen, Leningradon (orain San Petersburgo) eta zuzenbidea ikasi ondoren, 1975ean zuzenean sartu zen KGBko atzerriko adarran. Alemanian luzaroan egon ondoren, Sobiet Batasuna desagertu zenean, 1991ean, Putinek San Petersburgoko Udalean aurkitu zuen lana, Anatoli Sobtxak alkate liberalaren laguntzaile gisa. Han beste buruzagi liberal bat ezagutu zuen, Anatoli Txubais.

Sobtxakek 1996an galdu egin zituen hauteskundeak, eta Putinek, bere belaunaldiko askok bezala, Moskura jo zuen, eta Kremlinen postu bat lortu zuen. 1997an Kontrol Saileko buruzagi egin zuten, eta hor eztabaida handiak izan zituen botere gehiago nahi zuten Errusiako 89 errepublika eta eskualdeetako agintariekin. Inperialista ospea lortu zuen. 1998ko uztailaz geroztik, FSBko (KGB ohia) zuzendari nagusia eta administrazio presidentzialeko buruzagiordea izan da.